

## SABINO ARANA GOIRI

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2003-XI-21*

*Jose Luis Aurtenetxe,  
Sabino Arana Fundazioaren buruordea*

Oraindik orain, Sabino Arana hil zenetik mendeurrena bete denean, haren inguruko erreferentziak polemikoak suertatu ohi dira. Euskal abertzaleentzat Sabino euskal abertzaletasun politiko modernoaren sortzailea da; berak gainditu zuen ordura arteko foruzaleatasuna eta bera izan zen joera politiko horren oinarritzko kontzeptuak ezarri zituen, aldaketa sozio-politikoaren eragile bihurtuz kontzeptuok. Guretzat, abertzaleentzat, aipatutako ezaugarri hori horren garrantzitsu da ze, askotan erabili izan dugula justifikazino nagusitzat eta nahikotzat, eta hori ezagutzearekin asetutzat sentitu garela, eta alde batera utzi dugu Sabinok landutako esparruetan egin zituen ekarpenak sakontze eta aztertzak eskatzen zuen lana.

Beste batzuentzat, espainiazaleentzat, aspaldiko partez oso erasokor ari diren horientzat, Sabino Arana aipatzerakoan badirudi euren aurkako zerbait esan dela, eta gaur eguneko testuinguru europearrean izan litezkeen adierazlerik ezezkorrenak egozten dizkiote, batez ere arrazakeriazale eta xenofobo hutsa izan zela. Horretarako, bada, Aranaren mezuak eta lanak berezko duten testuinguru historikotik atara besterik ez dute egiten behin eta berri.

Lerrookin ez dut inor iritziz aldaerazi nahi. Eztabaida antzu horren ikuspegi estua gainditzeko modurik zintzoena zein den, nire ustez, azpimarratzea besterik ez dut gura: Sabinoren lanaren azterketan sakontzen ahalegintzea; landutako esparruetan egin zituen ekarpenetan sakontzen ahalegintzea. Horrengatik, hain zuzen ere, oso erakargarri eta garrantzitsu deritzot mintegiaren helburuari: euskararen iraunerazpenerako, berreskuraketarako eta normalkuntzarako Sabino Aranaren ekarpena analitikoki berrikustea.

Argitalpen honetan zehar ikusi daitekeenez, hogaako ekarpen hau ere ez da polemikatatik at geratu. Ezin daiteke beste modu batera izan, gure sortzaile izan zenaren bizitzaren ezaugarri nagusi ziren sentikera agonikoa eta izakera berriztatzailea aintzat hartzen baditugu. Baina nire iritzian benetan garrantzitsua dena, gure geure hizkuntzaren gaur eguneko egoerearen ikuspegitik abiatuta, garai hartako euskararen inguruko eztabaidetan Sabinok eragin zuen astintze-lana da, hizkuntza biziberrituko zuen osteragoko mugimentuetarako

ezinbesteko eragin bultzagarri izango zuelako horrek. Eta ekarpen hori, edo zelan ere, ez dugu behar bestean eskertuko euskararekiko zaletasuna dugunok eta euskara maite dugunok.

Amaitzeko, nire esker onik zintzoena adierazo gura diot Euskaltzaindiari, mintegia antolatzerakoan izan duen parte hartzeagatik. Zer erakunde hobetik gauzatzeko, bidezketasunez eta zuzentasunez, Sabino Aranak zeregin horretan egindako lanaren benetako nondik-norakoak, egindakook aztertze eta neurtze. Beste alde batetik, bertan dauden hitzaldien aberastasunak berez eta besterik gabe adierazten du egileek pertsonaiaren beraren eta alor honetan egindako lanaren azterketa egiterakoan jarritako adorea eta ahalegina. Euroi ere gure Fundazioaren esker ona.

\* \* \*

*Oharra:* honako lerro hauek mintegiaren hitzaldiak hartuko dituen argitalpenaren sarrera, hitzaurre edo dena delakotzat sartu beharrekotzat direla aintzat izanda ere, ez ditut izendatu, argitalpenaren arduradunek eurek zehaztuko baitute zuzenago zein toki edo ataletan joango diren.